# HITZALDIAK ETA BIDAIAK EXPOVACACIONES 2023
# Maiatzaren 5etik 7ra.

## Ostirala, maiatzak 5

| ORDUTEGIA (Hasiera eta amaiera) | |
|---|---|
| 12:00 – 13:15 | **Izenburua:** Itsas zaborra, birziklapena eta ekonomia zirkularra<br>**Hizlaria:** Inés Jauregui Cangas<br>**Enpresa:** COCA-COLA CIRCULAR SEAS PROJECT<br>**Aurkezpenaren deskribapena:** MARES Circulares, Coca-colak antolatutako gazteentzako sentsibilizazio programa da. Kostaldeak, eremu babestuak eta ozeanoaren hondoak garbitzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko eta bultzatzeko helburua dauka.<br><br>Tailerra Chelonia elkarteak zuzentzen du, ikerketa zientifikoak egiteaz eta mehatxatutako espezieak eta ekosistemak kontserbatzeaz arduratzen den irabazi-asmorik gabeko nazioarteko erakundea hain zuzen ere, baita garapen iraunkorragoan, bioaniztasuna zaintzean eta klima-aldaketa moteltzen laguntzeko proiektuak gauzatzean oinarritzen dena. |
| 16:30 – 17:30 | **Izenburua:** Vascos por el Mundo programaren zuzendariarekin hizketan eta partaideen esperientziak.<br>**Hizlaria:** Ricardo Sánchez<br>**Konpainia:** Vascos por el Mundo<br>**Aurkezpenaren deskribapena:** Programa nola egiten den azalduko da; parte-hartzaileak eta helmugak nola aukeratzen diren, eta bere gorabehera guztiak. Vascos por el Mundo 200 emankizun baino gehiago ditu airean, eta ETBko saio arrakastatsuenetako bat da.<br><br>Horrez gain, programako partaide batzuen esku-hartzea ere izango dugu, Madeira, Kreta eta Erroman izandako esperientzia kontatuko digutenak. |
| 17:30 – 18:00 | **Izenburua:** Mendi gidariekin izandako esperientziak<br>**Hizlaria:** Andoni Gutiérrez - Mikel Barcenilla - Miguel Angel Bernalte (Pumu)<br>**Konpainia:** Feel the Adventure – Menditek - Sokan<br>**Aurkezpenaren deskribapena:** Oinez gurekin Euskal Herriko natur gune ikusgarrienetan zehar.<br><br>✓Gorbeian ibilaldia EUSKARAZ POLIKI-POLIKI ESATEN DUGU (PIXKI-PIXKI) Gorbeiako sekretuak ezagutuko ditugu egunsentia ikusten: ezagutu, interpretatu, gozatu eta arakatu.<br>✓ Arroilak Araban BIZITZA ALDATZEN DUEN ESPERIENTZIA<br>✓ Via ferratak prebenitzen ikasi Modalitate honetan ikasten eta oinarrizko nozioak hasieratik finkatzen.<br>✓ Eskalada Atxarten: Suitza Txikia |
| 18:00 – 18:30 | **Izenburua:** Hitzaldi formatiboa<br>**Hizlaria:** Andoni Gutiérrez - Mikel Barcenilla - Miguel Angel Bernalte (Pumu)<br>**Konpainia:** Feel the Adventure – Menditek - Sokan<br>**Aurkezpenaren deskribapena**: Mendiko gidariekin hausnartu gure mendi irteerak seguruago egiteko kontuan izan behar ditugun gakoei buruz. |

| | |
|---|---|
| **18:30 – 19:00** | **Izenburua:** Ametsek ez dute gailurrik, diabetesa naturan<br>**Hizlaria:** Susana Ruíz Mostazo<br>**Konpainia:** Feel the adventure-rekin lankidetza<br>**Aurkezpenaren deskribapena:** Diabetesa, naturan behar bezala konbinatu behar den motxila osagarria da, mendiko bideetan.<br>Denok dugu gure motxila, (patologiak, segurtasunik ezak, beldurrak) baina horrek ez gaitu gure ametsak aurrera eramatea eragotzi behar, behar bezala prestatu eta haietara abian jarri baizik.<br><br>Munduko hainbat tokitara edo herrialdeetara bidaiatzean, bai bertako txoko bakoitzaren historia ezagutzeko, mendiak igotzeko edo edozein jarduera egiteko. INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA autonomoa eta autosufizientea izatea beharrezkoa da.<br><br>AMETSEK EZ DUTE GAILURRIK liburu autobiografikoaren aurkezpena zuen eskura, non 11 urterekin diabetesa diagnostikatu izana eta nire gaixotasuna kontrolatzea eta bizi nahi nuen bizitzara egokitzea nola erabaki nuen kontatzen dudan.<br>Lehenik, herrialde ezberdinetatik bidaiatuko dugu, Egipto, Kenya. Gero etxeko mendietaz gozatuko dugu, Euskal Herrian eta Pirinioetan eta azkenik, Nepal, Kilimanjaro, Meru, Groenlandia, Elbrus, Toubkal eta Saharara jaurtiko gara.<br><br>Liburuaren paragrafo batzuk irakurriko dira eta leku hauen guztien argazkiekin bideo bat erakutsiko da.<br><br>Nahi duenak LOS SUEÑOS NO TIENEN CIMA-ren ale bat eros dezake. |

## Larunbata, maiatzak 6

| ORDUTEGIA (Hasiera eta amaiera) | |
|---|---|
| **12:30 – 13:00** | **Izenburua:** Geoturismoa, geologia baliabide turistiko bihurtuz.<br>**Hizlaria:** Imanol López Díaz<br>**Enpresa:** Ekobideak Koop, Elk.Txikia<br>**Aurkezpenaren deskribapena:** Geoturismoa gure planetan hazten ari den turismo iraunkorreko praktika bat da. Hala ere, asko dira joera turistiko hori kontsumitzen dutenak, kontziente izan gabe. Inoiz pentsatu al duzu planetako 7 mirari naturaletan? Gaztelugatxeko San Juan, Zumaiako edo Euskal Herriko Parke Naturalen bat bisitatu al duzu?<br>Ekobideak-en geoturismoan erreferente izaten saiatzen gara, mota honetako jarduerak Bizkaia osoan garatuz eta proposatuz. Bizkaiko Flysch-eko itsaslabar-kosta, Urdaibaiko Biosfera Erreserba, Enkarterri, Lea-Artibai eta Bilbo, geoturismoko baliabide batzuk ezagutu ahal izango dituzu, hala nola fosilak, meteoritoak, suharria, arroka bolkanikoak eta mineralak. |
| **13:00 – 13:30** | **Título**: Brittany Ferries: Bilbo eta Euskadi Erresuma Batuarekin eta Irlandarekin lotzen, gurutzaldi-ontzietan bidaiatzeko modu ezberdin, jasangarriagoa eta modernoagoa.<br>**Ponente**: Roberto Castilla<br>**Empresa**: BRITTANY FERRIES<br>**Descripción ponencia**: 15 diapositibaz osatutako aurkezpena egingo dugu, eta azkenaurrekoak minutu 1 eta erdiko iraupena duen bideo bat dakar. BFren eta Bilboko portuan ustiatzen ditugun itsasontzien historia eta Erresuma Batuarekin eta Irlandarekin ditugun loturak gurutzaldi motako ferryetan errepasatuko ditugu. |

| | |
|---|---|
| | Iraunkortasunarekin eta ingurumenarekin dugun konpromisoa transmitituko dugu, ekologikoagoak diren eta ekosistema errespetatzen duten itsasontziekin. |
| 18:30 – 19:30 | VASCOS POR EL MUNDO |

## Igandea, maiatzak 7

| ORDUTEGIA (Hasiera eta amaiera) | |
|---|---|
| 17:30 – 18:30 | VASCOS POR EL MUNDO |